

BOST MINUTUKO IKASTAROA

Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Euskara hobetzen

HOR NONBAIT / NONBAIT HOR

Gutxi gorabehera adierazteko erabiltzen dira.

Non daude giltzak? HOR NONBAIT.

Non dago irekigailua? HOR NONBAIT ikusi dut lehen.

Zenbat daramazu itxaroten? Ordu erdi NONBAIT HOR.

NOLA EDO HALA / NONDIK EDO HANDIK / NORA EDO HARA / ZERTAN

EDO HARTAN

Adibideekin ikusiko dugu esapide hauen erabilera:

NOLA EDO HALA lortu behar dugu.

NONDIK EDO HANDIK aterako dugu dirua.

NORA EDO HARA joan beharko dugu; hemen ezin gara geratu.

Zertan ez dakit, baina ZERTAN EDO HARTAN ibiliko da.

Euskal Gramatika Osoa. Ilari Zubiri; Entzi Zubiri.

Iritzia

Gaizka Garitano:

Guk Espainian egiten dugu lan, ulertze aldera, eta oso markatuak egon gara egin edo esan izan ditugun gauza batzuentatik. Gainean daramatzagu betiko, baina horrela da. Jendeak erreferenteak behar ditu, eta, guk ez badugu hori egiten, zaila da beste batek egitea. Realeko edo Athleticeko jokalariek adierazpenak euskaraz egitea garrantzitsua da, erreferente direlako haurrentzat. Guk erantzukizuna daukagu; ez gara bakarrik futbolariak eta entrenatzaileak. Nire kezka da naizen bezalako agertzea; horrelakoa izatea gustatzen zait, gauza onekin eta txarrekin. Guk egiten duguna, gure hizkuntza eta gure hautu politikoa erakusten baditugu jendaurrean, gazteek ikusi egiten dute, eta eredu gara.

Joan den igandeko Berrian elkarrizketa polita irakur dezakegu, Amets Arzallus eta Gaizka Garitanori egindakoa:

http://www.berria.eus/ahomentan2017/bertsoa_zelaian_baloia_plazan/

2015ean Gaizka Garitanok alde egin zuen Almeriako prentsa-aretoetik kazetari batek euskaraz erantzuten utzi ez ziolako.



<https://www.youtube.com/watch?v=q1GuH3KjvhQ>